

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

**42/2020 Mozioa, uztailaren 8koa, egoitza-eredu berri bat garatzeari eta gizarte-zerbitzuen eredu berri bat eraikitzeko zaintza-sistemaren egungo egoerari buruzko eztabaida sakon bat behar izateari buruz**

Arabako Batzar Nagusiek, 2020ko uztailaren 8an egindako osoko bilkuran, ondorengo mozioa onetsi zuten:

42/2020 Mozioa, uztailaren 8koa, egoitza-eredu berri bat garatzeari eta gizarte-zerbitzuen eredu berri bat eraikitzeko zaintza-sistemaren egungo egoerari buruzko eztabaida sakon bat behar izateari buruz.

1. Arabako Batzar Nagusiek aitortu eta balioetsi egiten dute gure lurraldeko osasun- eta gizarte-baliabideetako profesionalek egindako lan bikaina, eta aitortza eta esker ona helarazi nahi diete oro har egiten duten lanagatik eta, bereziki, pandemian zehar egin duten lanagatik.

2. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote beste egoitza-eredu bat garatu dezala Arabako Lurralde Historikorako, zeinak ezaugarri izango baititu pertsonengan zentratutako arreta integrala eta nork bere etxean duen bizimodutik ahalik eta hurbilen dauden elkarbizitza eta bizimodua. Hori gauzatzeko, zahartzaroaren eta desgaitasunen sektoreko langile eta adituen parte-hartzea izan beharko du Aldundiak.

3. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari eskatzen diete arlo soziosanitarioan eskumenak dituzten erakunde guztien arteko elkarrizketa sakon bat susta dezatela, egungo zaintza-sistemari buruz, Arabako gizarteak egun dituen eta etorkizunean izango dituen beharrei eta erronkei erantzungo dien gizarte-zerbitzuen eredu berri bat eraiki ahal izateko. Lan horretan, askotariko eragile politiko eta sozialek parte hartuko dute, hainbat eskumen esparrutako sistemen eta zerbitzuen arteko koordinazioarekin.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko uztailaren 8a

*Presidentea*

**PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA**